



Ayuntamiento de Ansoáin  
Antsoaingo Udala  
C.I.F./I.F.K. P3132500D  
Tel.: 948132222  
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa – Navarra  
[ansoain@ansoain.es](mailto:ansoain@ansoain.es)  
[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

## 6. AKTA. LEHENENGO PROBAREN BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA BERRIKUSTEA

1.- Antsoainen, 2021eko ekainaren 22an, 13: 00etan, Antsoaingo Udaleko lehen solairuko bulego batean bildu dira ondoren aipatzen direnak. Pertsona horiek Antsoaingo Udalerako polizia agentearen plaza bat eta Berriozarko Udalerako bi plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren epaimahai kalifikatzailea osatzeko izendatu dira.

- Epaimahai-burua: Iñigo Anaut Peña, Antsoaingo Udaleko Lan eta Giza Baliabideetako aholkularia.
- Batzordekidea: Mikel del Molino Cruchaga, Antsoaingo udaltzainburua.
- Idazkaria: Ainara Armendáriz Castián, Antsoaingo Udaleko idazkaria.

2.- Epaimahaiak egiaztatu du, lehenengo ariketaren kalifikazioei aurkeztutako alegazioak ebaztean, akats bat gertatu dela. NAPlri zuzenketa berrikustea eskatzeko erabakiari dagokion aktan jasotakoa

NAPlri hautagaien ariketen zuzenketa berria eskatzea, 9. eta **63.** galderak kenduta eta 71. eta 72. galderak sartuta.

Esan behar zenean

NAPlri hautagaien ariketen zuzenketa berria eskatzea, 9. eta **70.** galderak kenduta eta 71. eta 72. galderak sartuta.

3.- Egindako akatsa zuzentzeko, erabakia hartu da NAPlri hautagaien ariketak zuzen daitezen eskatzeko, 63. galdera barne, 9. eta 70. galderak kenduta eta 71. eta 72. galderak sartuta. Zuzenketa hori NAPlri egiten du une berean, eta kalifikazio zuzenduak dituzten aktak bidaltzen ditu. Epaimahaiak berretsi eta onartu egiten ditu akta horiek, eta berehala argitaratzea erabakitzen du.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura amaitutzat eman da 10:30ean, eta akta hau egin da, adostasun froga gisa. Horren guztiaren fede ematen dut, idazkari naizen aldetik, eta batzordeburuak ontzat ematen du.

EPAIMAHAI-BURUA

IDAZKARIA

Iñigo Anaut Peña

Ainara Armendáriz Castián